

ALBE

# BERTSO AGENDA

2024 - 25 / URRIA - URTARRILA




BIHOTZA GAZTE - ALBE GALA - AZOKAKO SAIOA - BERTSO JIRAK


# ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA

[www.albe.eus](http://www.albe.eus)

SARE SOZIALAK

 albe\_bertso

 @albertsolari

 Algortako Bertsolari Eskola

HARREMANETARAKO

Martikoena 16, 2. solairua, 2. bulegoa  
Algorta (Getxo)  
48992 Bizkaia

605704385

albegetxo@gmail.com

Diseinua: KermanDF

Laguntzaileak:





**4** EKITALDIAK

**8** ARGAZKI GALERIA

 *Jaialdia*

 *Berezia*

 *Bertso jira*

URRIA

6

DOMEKA

## BIZKAIKO BERTSO MUNDUKO EMAKUMEEN II. TOPAKETA

**12:00**    **BILBO**

Bizkaiko Bertsozale Elkarteak antolatutako topaketa honek bertsoaritzan munduan dabilzan emakumeak elkartzea eta saretzea du helburu. Aurreko edizioako esperientzia errepikatu eta eguna giro ederrean pasatzeko gogoz antolatu da bigarren edizio hau Bilbon.

Eguna 12:00etan hasiko da, Errondabidetik abiatuko den bertso poteo gidatu batekin. Ondoren, 14:30ean, bertso bazkaria egongo da Kalderapeko jatetxean.



Lehen topaketa 2022an / bertsozale.eus

### Poteoko bertsolariak:

Garazi NAVARRO  
Iruñe BASAGOITI  
Ixone ASATEGI  
Maite SARASOLA

### Bazkariko bertsolariak:

Jone URIA  
Nerea IBARZABAL



URRIA

21

ASTELEHENA

## IKASTAROA: BERTSOLARITZA XXI. MENDEAN

Xabier Paya Ruiz bertsolari eta ikertzaileak, UNED-Bergara Ikastetxe Elkartuarekin eta Asmoz fundazioarekin elkarlanean, online ikastaro honen bigarren edizioa jarri du martxan.

Formakuntza honen ikasleek bertsoaritzan bere osotasunean ulertzeko pistak jasoko dituzte, bai bertsoaritzaren mugimenduaren testuingurua ezagutzeko, bai bertso-saio batean bertsozale kualifikatu batekin izan ditzakeen tresnen berri izateko.

Izen emateko, bete esteka honetako galdetegia:  
[bertsoaritzasmoz.org/eu/izen-ematea/](https://bertsoaritzasmoz.org/eu/izen-ematea/)



### Irakaslea:

Xabier PAYA

### Datak:

Urriaren 21etik azaroaren  
25era

### Iraupena:

15 ordu

### Prezioa:

Doakoa

**ASMOZ**  
FUNDAZIOA

**UNED**  
BERGARA

AZAROA

15

BARIKUA

BIHOTZA GAZTE

20:30

ALGORTAKO AZEBARRI  
KULTUR TXOKOA

Bertsogintzan ibilbideak eta eskarmentuak egundoko garrantzia dute, plazaz plazako jardunak osatu eta zaildu egiten baitu bert-solaria.

Idea horrekin hasi ginen Bihotza gazte anto-latzen, eta beteranoak fokupean jartzen.

Azken edizioetan beteranoak eta gazteagoak elkartu ditugu, ikuspuntuen transmisioa ere norabide bikoa izan dadin.



2022ko saioa / albe.eus

**Bertsolariak:**

Josu LANDETA  
Xabier ARRIAGA "TXIPLAS"  
Haira AIZPURUA  
Xabat ILLARREGI  
Gai-jartzailea: Jone URIA

AZAROA

28

EGUENA

SOPELAKO BERTSO JIRA  
MUSIKATUA

19:30

SOPELAKO  
KALE-TABERNAK

Bertso eta soinu, soinu eta bertso. Bikote ona dantzarako. Sopolako bertso jira musikatua badu pisua eta indarra dagoenako.

Poteatzeko ez da bertsorik behar. Baina bertsoak entzutea poteatu bitartean egunero gure esku ez dagoen kapritxoia dugu. Ez izan hotzaren beldur, abenduan izan arren, eta erduze geugaz poteatzera eta bertsoak entzutera.



2018ko bertso jira / albe.eus

**Bertsolariak:**

Unai MENDIBURU  
Unai ITURRIAGA

**Musikariak:**

Gentzane FERNANDEZ  
Ander TRABUDUA



Sopolako Udala

**ABENDUA**

**7**

**ZAPATUA**

## **LEIOAKO NEKAZARITZA AZOKAKO BERTSO SAIOA**

**20:00** **KULTUR LEIOA  
AUDITORIUMA**

Nekazaritza azoka aitzakia polita izaten da gure lurreko produktuak bertatik bertara dastatzeko. Ortuariiek, frutak, gaztak eta txakolinak protagonismo berezia hartzen dute honelakoetan.

Baina eskaintza zabal horri bertso ederrak entzuteko aukera eranstean badiogu, gure urdaila ez ezik, gure gogoia ere poz-tuko da!

Edan debalde bertsogintza bizi-bizitik!



2019ko azokako saioa / [albe.eus](http://albe.eus)

### **Bertsolariak:**

Naraoa TORRALBA

Alaia MARTIN

Ametz ARZALLUS

Aitor SARRIEGI

Gai-jartzailea: Jon AMEZAGA



**ABENDUA**

**15**

**DOMEKA**

## **ALBE GALA**

**12:00** **ALGORTAKO  
IGERETXE HOTELA**

Bertso urte oparoari tamainako errematea zor zaio. Algortako Ereaga hondartza eszenatoki natural zoragarria dugu helburu horretarako, eta Igeretxe hotela ostatu ezin egokiagoa: koktela, kanpoko eta etxeko bertsolariak, bideo emanaldia, musika zuzenean, bertsoak, kantu eta dantza...

Aurten, gainera, urte birik behin banatu ohi dugun URREZKO AHOBIA emango diogu ibilbide luzeko bertsolari bati!!!

Zatoz gurekin bertso urtea amaitzera!



### **Bertsolariak:**

Arrate ILLARO

Kerman DIAZ

Andoni EGAÑA

Sustrai COLINA

+URREZKO AHOBIA

ABENDUA

24

MARTITZENA

## OLENTZERO EGUNEKO BERTSO SAIOAK

**13:00** URIBE KOSTA

Olentzerok makina bat lan izaten du gure eskualdean, hainbat herritan ospatzen baita ikazkin eskuzabalaren jai.

ALBEko gaztetxoentzat ere aukera polita izaten da opariak hartu ez ezik, haiek ere euren bertsozko loreak guri oparitzeko.



2023ko Areetako saioa / albe.eus

Egon adi gure sare sozialei ekitaldiak non eta zer ordutan izango diren jakiteko. Horra, horra bertso oparia!!!



ABENDUA

27

BARIKUA

## ERANDIOKO BERTSO JIRA MUSIKATUA

**20:00** ESTRELLA TABERNATIK  
ABIATUTA

Tradizio luzeko bertso jira dugu Erandiokoa. Berbots Euskara Taldeko lagun nekazezinekin daukagun harreman historiko eta emankorrari esker, bertsolariak protagonista izango dira, berriz ere, urtea amaitzeko bertako kale-tabernetan egingo den bertso jiran.

Esan daiteke Berbots bertso hots bilakatzen dela gurekin elkartzen direnetan. Eutsi goiari, lagun hoskideok!



2023ko bertso jira / albe.eus

### Bertsolariak:

Imanol URIA  
Sustrai COLINA

### Musikariak:

Kulunkan Taldea





BALKOITIK BALKOIRA 2024



LEIOAKO JAIK 2024







MARATOIA 2024



ERANDIOKO JAIK 2024



BERTSO JAIALDI MUNDIALA 2024





HITZAREN DANTZA 2024



